

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3514

AGINDUA, 2015eko uztailaren 29koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena; honen bidez, aditzera ematen da fruta-eta barazki-ekoizleen antolakundeei 2015. urtean emango zaizkien laguntzen guztizko zenbatekoa.

Fruta eta barazki-ekoizleen antolakundeentzako laguntzak fruta eta barazkien sektoreko merkatu antolakunde bateratutik (MAB) datoz, Nekazaritza Politika Bateratuaren esparruan. Gaur egun, bi laguntza-mota daude: onartutako ekoizle-elkarteentzako erkidego-laguntza eta erakunde horientzako laguntza nazional osagarria.

Arlo horretako MAB arautzen duen erkidego mailako araudiaren azken aldaketaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan 30/2010 Dekretua argitaratu zen (urtarrilaren 26ko Dekretua, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duena). Dekretu horrek indargabetu eta ordeztu egin ditu laguntza horiek aurretik arautzen zituzten arauak: 228/1997 Dekretua, urriaren 14koa, eta 56/2000 Dekretua, martxoaren 21ekoa.

Nahiz eta eskabideak aurkezteko epeak modu mugagabeen dauden ezarrita erkidego-araudian eta urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuan (beranduenera jota hurrengo urteko otsailaren 15ean, alegia, eskabidea zein urtetarako den, hurrengo urteko egun horretan beranduenera ere), dekretu horren beraren 25.4 artikulua ezartzen du urtero emango dela jakitera agindu bidez dena delako urte horretan guztira zenbateko laguntzak emango diren fruta-eta barazki-ekoizleen antolakundeetara.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laguntzen zenbatekoa.

Guztira, 2015. urterako, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duen urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretuaren 22. artikuluko 1. paragrafoaren idatzi-zatietan aurreikusitako laguntzek ezingo dituzte gainditu kopuru hauek:

201.744,59 euro, NBBEFren konturako laguntzetan.

130.000,00 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako laguntzetan.

Bigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko

Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ondorioak.

Ebazpen honek ematen den egunetik izango ditu ondorioak. Nolanahi ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 29a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.